

Gaia: Hutsen zuzenketa, Barrualde-Galdakaoko ESIko Psikiatria-Desintoxikazioko Zerbitzu Sanitarioko Buruaren lanposturako hautagaiari, Leire Erkoreka González andreari, emandako kalifikazioetan. Lanpostu horretarako deialdia Barrualde-Galdakaoko ESIko zuzendari-gerentearen martxoaren 23ko 456/2022 Ebazpenaren bidez egin zen.

2022ko martxoaren 23an, Barrualde-Galdakaoko ESIko Psikiatria-Desintoxikazioko Zerbitzu Sanitarioko Buruaren lanpostua betetzeko deialdia argitaratu zen BOEn; honako arau hauetan xedatutakoarekin bat etorritz, lehiaketa prozedurarako: Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen Hirugarren Arau Erkidearen 28. artikulua; Osakidetzako lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretua; Osasun Zerbitzuetako estatutupeko langileen Esparru-estatutuaren abenduaren 16ko 55/2003 Legea, eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua.

Balorazio Batzordea 2022ko irailaren 26an bildu zen, deialdiaren oinarrietan ezarritakoaren arabera, eta proiektua baloratu eta horren defentsa egin zen, bai eta hautagaiaren merezimenduak eta euskara-ezagutzak baloratu ere.

2022ko irailaren 26an, Leire Erkoreka González andrea izendatzeko proposamena egin zitzaion Barrualde-Galdakaoko ESIko zuzendari-gerenteari, baremoaren atal bakoitzean Balorazio Batzordeko kideek emandako puntuazioa jasotzen duen I. eranskinarekin batera.

2022ko irailaren 29an, Leire Erkoreka González andreak erreklamazio-idazkia aurkeztu zuen, adierazitako lanpostua betetzeko prozesuan eman zitzaion puntuazioari dagokionean; zehazki, «Kudeaketa prestakuntza» atalari esleitutako puntuazioari (1 puntu).

Curriculum vitaean azaltzen den Kudeaketa prestakuntza berrikusi ondoren, egiaztatu da akats bat gertatu dela kudeaketa prestakuntzako ikastaroetako zenbaketan, eta atal horretako puntuazioa 3 puntukoa dela.


Horregatik guztiagatik, honako hau da Balorazio Batzordeko kideek baremoaren atal bakoitzean emandako puntuazio zehatza:

PROIEKTUA ETA DEFENTSA: 27,50 puntu
ESPERIENTZIA PROFESIONALA: 13 puntu
KUDEAKETA PRESTAKUNTZA: 3 puntu
ESPEZIALITATEKO ETENGABEKO PRESTAKUNTZA: 3 puntu
GRADUONDOKO PRESTAKUNTZA: 3 puntu
JARDUERA ZIENTIFIKOA: 3 puntu
IRAKASKUNTZA JARDUERA: 3 puntu
EUSKARA: 6 puntu

Puntuazio horren zuzenketak ez dakarrenez inolako aldaketarik Psikiatria-Desintoxikazioko zerbitzuburu den Leire Erkoreka González andrearen hautaketan, beraz, Psikiatria-Desintoxikazioko zerbitzuburu izendatzeko proposamena bere horretan mantentzen da, dagozkion puntuazioak eguneratu ondoren.

Galdakaon, 2022ko urriaren 10ean

Balorazio Batzordeko presidentea



David Cantero González

Balorazio Batzordeko idazkaria



LANGILEEN ZUZENDARITZA
Amaya de Alencastre Achalandabaso